

Donostia, 2016ko abenduaren 15a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, ITSASARGI PASEALEKUKO BEGIRATOKIAREN PROIEKTUA DELA ETA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, hil honetan batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 11n, Erregistro Nagusiaren bitartez, alkateari zuzendutako idatzi bat aurkeztu zuen Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak (Elkartuk), Itsasargi pasealekuko 44. zenbaki pareko begiratokiaren proiektuarekin ados ez dela adierazteko. Proiektuaren asmoa da sartzeko maila bat eta azalera guztian soropila jartzea.

Hainbat hedabidetan azaldu den infografian aurkeztutako zoruak eta barandak ez diete eskaintzen ez irisgarritasun ez ikuspegi egokirik gurpildun aulkien erabiltzaileei.

Era berean, eskatzen dute gorde dezatela, gutxienez, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku plaza bat begiratoki ingurutik gertu.

Hil honetako batzordean, gobernua interpelatu genuen galdetuz zergatik ez den aurkeztu pertsona guztien irisgarritasuna bermatzen duen proiektu bat. Bestalde, galdetu genuen ea badagoen aukerarik proiektua aldatzeko, irisgarritasun hori bermatze aldera.

Erantzunak harrigarriak izan ziren oso. Alde batetik, esan ziguten horrelako proiekturik ez dagoela eginda eta komunikabideetara helarazitakoa zirriborro bat baino ez zela, ez zela zertan izan proiektuaren azken bertsioa.

Beste alde batetik, azaldu ziguten oraindik Ondare Atalak argitu behar zuela proiektua kokatuko litzatekeen lurren titularra zein den, eta agian horietako batzuk titulartasun pribatuak direla.

Logikoa denez, Elkartu koordinatzaileak, bere interes legitimoak babestuz, kexa bat aurkeztu zuen "proiektuaren" irisgarritasun faltagatik, hedabideetan agertu zen informazioa aintzat hartuta.

Gure ustez, komenigarria litzateke bestelako praxia izatea udal gobernuaren komunikazio politiketan, hirira begira proposatzen dituen proiektuak aurkeztean. Halaber, hiriko gune publikoetan irisgarritasun unibertsala bermatu beharko litzateke, jakina.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernuari eskatzen dio irisgarritasun unibertsala berma dezala Itsasargiko begiratokiaren proiektuan.
2. Donostiako Udalbatzak Gobernuari eskatzen dio gorde ditzala aparkaleku plazak desgaitasuna duten pertsonentzat.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.